



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 2a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio bultza dezan Emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioaren aldaketa. Mozioa erretiratzea (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak nafarrei dei egiten baitie ez dezaten joko eta jostailu sexistarik erabil eguberriotan. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Grezian nazioarteko bi lankide atxilotu izana, bai eta EBk sustaturiko immigrazio-politikak ere. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Ginekologia eta Obstetria Zerbitzuko buruaren dimisioari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta ikuskatzaileen lanpostuen deialdiari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren 2017rako lan eskaintza publikoari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (8. or.).
- Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruz Gobernuak lehendakariak 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Lekunberrin ospaturiko “Día del Navarro ausente”-ri buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016rako eta 2017rako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, berriro ere kudeaketa publikoan jarri diren zerbitzu pribatizatuak buruzkoa. Galdera erretiratzea (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Fernando Azagra Diaz jaunak Nafarroako Kontseiluko kide izateko hautagaitzari uko egitea (11. or.).
- Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea, Nafarroako Parlamentuak proposaturik (11. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2017. urterako ordutegi ofiziala (12. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz.

«Iragan abenduaren 9an, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Álvaro Baraibarrek jen-

daurrean aztertu zituzten bakearen eta bizikidetasunaren arloan egiten ari diren politikak. Beren azalpenean, departamentuak ETaren terrorismoaren biktimekin duen harremana aipatu zuten. Zuzendariaren eta kontseilariaren arabera: “biktimek helarazi digutenez, programari buruzko ikuskera oso positiboa dute, oro har”, eta gehienek nabarmendu dute Gobernu haiekin harremanetan jartzen den “lehen aldia” dela.

Adierazpen horiek ez datoz bat ezertarako ere ETaren biktimek egiten dugun hausnarketarekin, eta ez dugu gure burua ikusten horietan islaturik; hortaz, lehendabiziko aldiz baterako agiri bat egitea pentsatu dugu, ETaren terrorismoaren Nafarroako biktimek Nafarroako Gobernuko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren aitzinean dugun jarrera azaltzeko.

Horrela hasten da Ana Olo kontseilariak eta Álvaro Baraibar zuzendariak Departamentuaren eta Zuzendaritza Nagusiaren jardunaren azterketa egite aldera abenduaren 9an egin zuten prentsaurrekoan esandako erdizkako egiak, gezurrak eta desitxuratzekak ikusita ETaren terrorismoaren Nafarroako biktimek nafar gizarteari igorri behar izan dioten gutun irekia.

ETaren biktimek 40 urte baino gehiago daramate isilean sufritzen, modu lasai eta isilean, nahigabea nork bere modura pairatzen, intimitatean, salbu eta noizean behin omenaldia egiten zaienean –bidenabar esanda, bat ere ez Nafarroako Gobernu honen aldetik–. Bada, Olo kontseilariaren badaezpadako ohorea da biktima horiek gutun ireki bat idatzi izana bere adierazpenak salatzeke eta, bereziki, kontseilariak eta zuzendari nagusiak ETaren biktimekiko erakutsitako jarrera interesatua salatzeke.

Biktimek bezala, Alderdi Popularrak ere sarri askotan adierazi du Bilduren babesaren duen gobernu batek ez duela gudan konfiantzarik sortzen; izan ere, alderdi horrek ETaren terrorismoa gaitzetsi gabe eta desegin dadila, armak entregatu ditzala eta biktimei barkamena eska diezaietela exigitu gabe jarraitzen du. Laukoa Gobernuan dagoenetik askotan frogatu da ezker erradikalak areagotu egin duela bere presentzia Nafarroako kaleetan, inpunitate osoarekin eta, askotan, are Bilduk gobernatutako udalen oniritziarekin ere. ETaren biktimek beren gutunean esaten dutenez, "hiltzaileen argazkiak festaguneetan gailentzen ez diren erkidego batean bizi nahi dugu. Terroristek preso politiko deitzen ez zaien erkidego batean. Historia hurbila iraganeko memoriarekin estali nahi ez den erkidego batean".

Horra ETaren Nafarroako biktimek beste behin eman duten duintasun eta prestutasun lezioa.

Departamentuaren burua denez geroztik, Olo kontseilaria direnak eta ez direnak egiten aritu da ETaren biktimak ez aipatzeko, "beste indarkeria batzuen" biktimen pare jarrita, berak esaten duenez. Urtebete baino gehiago da haiei omenaldi edo errekonozimendu bakar bat ere egin gabe; eta "beste indarkeria batzuen" biktimek ez bezala, kontu-sail berezirik ere ez daukate Nafarroako Aurrekontu Orokorretan. Eta behin eta berriro eskatu badiegu ere, ez bera ez lehendakaria ez dira gai izan Bilduri exigitzeko ETaren terrorismoa gaitzetsi dezan.

ETaren biktimak gutxietsi eta bere interes politikoetarako erabiltzen dituen ezin da Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia barnean hartzen duen departamentu bateko buru izan. Ezin da departamentuaren buru izan biktima horiekiko hartu-emanei buruz eta biktimak direla-eta izan duen jokabideari buruz gezurretan dabilena edo erabaki duena prentsaurreko batean ez aditzera ematea ETaren biktimek zer esan dioten "Bilduri buruz" edo ez aditzera ematea biktima gehienek ezetza eman diotela Gobernuarekin ekitaldi publiko batean parte hartzeari.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria Ana Olo, egia ez esateagatik Nafarroako Gobernuak ETaren terrorismoaren biktimekin izandako harremanari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Álvaro Baraibarrek dimisioa eman dezan eskatzen du, eta halakorik gertatuko ez balitz, Nafarroako Parlamentuk Barkos lehendakaria eta Olo kontseilaria premiatzen ditu hura kargutik ken dezaten.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba foru parlamentaria

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio bultza dezan Emakumeen aurkako indarkeriari arretea ematean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioaren aldaketa.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zitzaion bultza zezan Emakumeen aurkako indarkeriari arretea ematean eta aurreneurriak hartzean

eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko Akordioaren aldaketa, eta 2016ko irailaren 8ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak nafarrei dei egiten baitie ez dezaten joko eta jostailu sexistarik erabil eguberriotan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak nafarrei dei egiten die ez dezaten joko eta jostailu sexistarik erabil eguberriotan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du eguberriak aukera ematen duela beste jardute- eta

hezte-modu bat baliatzeko, zereginak partekatuz, oparien bidez berdintasuna transmitituz eta eredu eraikitzaileak, berdintasunezkoak, ez hain kontsumistak eta solidarioagoak izanez.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzzen baitu Grezian nazioarteko bi lankide atxilotu izana, bai eta EBk sustaturiko immigrazio-politikak ere.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten ditu EBk eta estatu kideek sustaturiko immigrazio-politikak, erabat bidegabe eta ez-gizatiarrak, giza eskubideak sistematikoki urratzen dituztelako; besteak beste, zirkulazio askerako eskubidea eta asilo-eskubidea (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. eta 14. artikulua).

2. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du aktibistek eta nazioarteko lankideek egin behar

izatea errefuxiatuei laguntzeko jarduera humanitario eta solidarioak, gobernu eta erakundeen erabakirik ezaren erruz, balizko ondorio penalak jasateko arriskuei ere aurre eginez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiei dei egiten die adierazpen honekin bat egin eta atxiloturiko aktibistei elkartasuna adierazteko antolatzen diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Ginekologia eta Obstetrizia Zerbitzuko buruaren dimisioari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Ginekologia eta Obstetrizia Zerbitzuko buruaren dimisioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Ospitaleguneko Ginekologia eta Obstetrizia Zerbitzuko buruaren dimisioak zer eragin izanen du departamentuan?

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreztea ona dela esanez abenduaren 13an egin zenituen adierazpenak ikusita, zer balorazio egiten duzu Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari buruz?

Iruñean, 2016ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta ikuskatzaileen lanpostuen deialdiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta ikuskatzaileen lanpostuen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-terko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako lan-eskaintza publikoa iragarri zuen iaz.

Iragan irailean, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak konpromiso hori berretsi zuen, ziurtatu baitzuen 2017an egingen direla Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta hizkuntza eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko hautaprobak. Orobat adierazi zuen urria bukatu baino lehen jakinaraziko zirela lanpostu kopurua eta espezialitateak.

Iragan azaroaren 10ean, Hezkuntzako kontseilariak Legebiltzar honen Osoko Bilkuran baieztatu zuen 2017ko ekainean egingen dela Bigarren Hezkuntzako lanpostuen deialdia, bai eta deitu gabe gelditu ziren ikuskatzaileen kidegoko 14 lanpostuak ere.

Oraindik ez da deialdi hori argitaratu, eta ez dakigu zer lanpostu deituko diren zehatz-mehatz.

Noizko argitaratuko du Hezkuntza Departamentuak deialdi hori? Zerk justifikatzen du atzerapen hau?

Iruñean, 2016ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren 2017rako lan eskaintza publikoari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren 2017rako lan eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Hezkuntza Departamentuak erabaki al du noiz egingen duen 2017rako lan-eskaintza publikoaren deialdia? Datak? Espezialitateak?

Corellan, 2016ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumon andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zerorrek deitu al zenion Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Alba andreaki, azaroaren 30eko Gobernu bilkura bukatu bezain laster, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanaren berri hari emateko, Uxue Barkos lehendakariak abenduaren 15eko Osoko Bilkuran adierazi zuen moduan?

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruz Gobernuako lehendakariak 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran egindako adierazpeni buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruz Gobernuako lehendakariak 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran egindako adierazpeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zenuen egia esan 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran? Izan ere, adierazi zenuen Beaumont kontseilariak berak deitu ziola Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Alba andreari, azaroaren 30eko Gobernu bilkura bukatu bezain laster, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanaren berri hari emateko, baina ez zen halako deirik izan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Lekunberrin ospaturiko “Día del Navarro ausente”-ri buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Lekunberrin ospaturiko “Día del Navarro ausente”-ri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

2016ko ekainaren 4an “XXVIII Día del navarro ausente” izeneko eguna ospatu zen Lekunberrin, “Federación de Hogares navarros” entitateak antolatuta, Nafarroako Gobernuaren babesarekin, hedabideetan agertu zenez .

– Zein da egun horren ospakizunak izan zuen aurrekontua, zein dira egindako gastuak, eta zein da Nafarroako Gobernuak zehazki egin duen ekarpen ekonomikoa?

Iruñean, 2016ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016rako eta 2017rako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016rako eta 2017rako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Ba al dago Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegiturak direla-eta 2016-2019 aldirako darabiltzan jarduketa-asmoei buruzko dokumenturik?

Corellan, 2016ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, berriro ere kudeaketa publikoan jarri diren zerbitzu pribatizatuak buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Inmaculada Jurío Macaya andreak galdera erretiratu izanari dagokionez, berriro ere kudeaketa publikoan jarri diren zerbitzu pribatizatuei buruz

aurkezturikoa. Galdera 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Fernando Azagra Díaz jaunak Nafarroako Kontseiluko kide izateko hautagaitzari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28ko erabakiaren bidez, Fernando Azagra Díaz jauna aldarrikatu zuen Nafarroako Kontseiluko kide izateko hautagai gisa, Iruñeko Abokatuen Elkargoak proposatuta. Horren ondoren, 2016ko abenduaren 13ko idazkiaren bidez, Fernando Azagra Díaz jaunak uko egin dio hautagai izateari.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Fernando Azagra Díaz jaunak Nafarroako Kontseiluko kide izateko hautagaitzari aurkezturiko ukoa.

2. Erabaki hau Nafarroako abokatu-elkargoei eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gobernu Kontseiluari jakinaraztea.

3. Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea, Nafarroako Parlamentuak proposaturik.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2016ko abenduaren 22an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“**1.** José Luis Goñi Sein jauna hautatzea Nafarroako Parlamentuak proposaturiko Nafarroako Kontseiluko kide.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2017. urterako ordutegi ofiziala.

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2017rako ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honen bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehenengoa. Xedatzea Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2017. urterako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkeztekoa, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea ezen Comptos Ganberari zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Oroko-

rra itxita egonen dela Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren abenduaren 23ko 207/2016 Foru Aginduan ezarritako larunbat, igande eta jaiegunetan, bai eta uztailaren 11, 12, 13 eta 14an ere, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga